

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Komunikazio-, banaketa-, eta salmenta- kanalak erabiliko ditugu gure zerbitzua bezeroengana helarazteko. Kanal hauen bitartez lortuko dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazi dezan.

Horretarako kanal bakoitzak bost fase bete behar ditu: Pertzepzioa, ebaluazioa, eresketa, entrega, salmenta ondorengoa. Bost fase hauek betetzerakoan gure proiektuaren onarpena eta banaketa egokia izan den jakingo dugu.

Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusia publizitatea izango da; hau da, gure zerbitzuaren publizitatearen bitartez. Publizitate hau aurrera eramango dugu batez ere sare sozialen bitartez bolondresak eskuratzeko (entitateak janaria banatzeko) eta ezagutzera emateko gure ekimen berritzailea. Hala ere, teknologia berriak alde batera utziz guk lan egin nahi dugun kolektiboarekin baliabide gutxi izanda agian ez ditu errekurtsoak sare sozialetan igotako publizitateaz ohartzeko fisikoki ere jardungo dugu publizitatea egiten. Triptikoak egingo ditugu eta gune estrategikoetan utziko ditugu (hirian pobrezia gehien dagoen tokietan adibidez) eta kartelak jarriko ditugu hiri osotik gure ekimena aurkeztuz.